

BESTELAKO XEDAPENAK

ZIENTZIA, UNIBERTSITATE ETA BERRIKUNTZA SAILA

4977

AGINDUA, 2025eko azaroaren 4koa, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuarena, ikertzaile doktoreentzako mugikortasun-programarako deialdia egiten duena.

Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailaren iritziz, ikertzaileentzako mugikortasun-programak tresna egokia dira komunitate zientifiko eta teknologikoa prestigio handiko ikertzaileekin harremanetan jartzeko, bai eta unibertsitateko irakasleen ezagutza zientifikoak eta teknikoak eguneratu eta perfektionatzeko ere.

Kontuan izan da lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuan ezarritakoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako sailak sortu, desegin eta aldatzeari buruzkoa eta sail horien eginkizunak eta jarduketa-arloak finkatzeari buruzkoa (2024ko ekainaren 24a).

Deialdi hau ebazteko, kontuan izango dira administrazio publikoen dirulaguntzak emateko jarduera arautzen duten printzipioak, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legean ezarritakoaren arabera, eta bat etorritz Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren (Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez garatua) oinarritzko manuekin eta laguntza eta dirulaguntzei aplikatu beharreko gainerako xedapenekin, eta eskura dauden baliabide ekonomikoak aplikatuko dira agindu honetan ezarritako irizpideen arabera. Halaber, adierazi behar da Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailaren 2026ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoak deialdi hau jasoko duela 1. helburu estrategikoa betetzeko dirulaguntza-lerroen barruan.

Oinarri gisa Ogasun eta Herri Administrazioako sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Agindua hartu da, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emandako gastu-espedienteak aurretiaz izapidetzea arautzeari buruzkoa, eta hark xedatutakoa.

Horri jarraikiz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.— Ikertzaile doktoreentzako mugikortasun-programarako oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea 2026. urterako.

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA

Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emandako gastu-espedienteak aurretiaz izapidetzea arautzeari buruzko Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduko 5.3 artikulua ondozondorako, agindu honetako dirulaguntzei buruzko ebazpena emateko garaian, kreditu egokiak eta nahikoak egon behar dira Euskal Autonomia Erkidegoaren 2026. urteko aurrekontu orokorretan.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango diote Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta

hurrengo egunetik aurrera; edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean, agindua aldizkari ofizial berean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko azaroaren 4a.

Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburua,
JUAN IGNACIO PÉREZ IGLESIAS.

I. ERANSKINA

IKERTZAILE DOKTOREENTZAKO MUGIKORTASUN-PROGRAMARAKO DEIALDIAREN
OINARRIAK

1. oinarria.— Xedea.

Agindu honen helburua laguntzetarako deialdia egitea da, norgehiagoka-erregimenean, ikerketa-zentroetan dedikazio eskusiboarekin egonaldiak egiteko, bi helburu hauek betetzeko: batetik, I+G+B zentro eta erakundeetako ikertzaileen eta unibertsitateko irakasleen mugikortasun geografikoa bultzatzea, eta, bestetik, ikertzaile-taldean lehiakortasuna eta gaitasuna hobetzea.

Egonaldian zehar, ikertzaileek ikerketa-proiektu bat garatu beharko dute, zeina talde hartzailearen lan-ildoan integraturik egongo baita, edo, bestela, goi-mailako lotura eta trukeak ezartzera bideratutako jarduerak burutu beharko dituzte.

Bi modalitate ditu ikertzaile doktoreentzako mugikortasun-programak:

A) A modalitatea: ikertzaile seniorren mugikortasuna, langile iraunkorrei zuzendua.

B) B modalitatea: ikertzaile juniorren mugikortasuna, langile ez-iraunkorrei zuzendua.

2. oinarria.— Egingo diren proiektuak.

1.— Mugikortasun-egonaldietan egin beharreko proiektuak deialdi honetan adierazitako helburuari egokitu behar zaizkio.

2.— Honako printzipio hauek errespetatu behar dituzte proiektuek:

a) Honako adierazpen eta hitzarmen hauetan ezarritako oinarrizko printzipioak: Helsinkiko Adierazpena (Munduko Medikuntza Elkarteak); Giza eskubideei eta biomedikuntzari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmena; Giza genomari eta giza eskubideei buruzko UNESCOren Adierazpen Unibertsala, eta ikerkuntza biomedikoari, datu pertsonalen babesari eta bioetikari buruz Espainiako legedian ezarritako eskakizunak.

b) Gizakiekin ikerketak egitea edo giza jatorriko laginak erabiltzea dakarten proiektuek Ikerkuntza Biomedikoari buruzko uztailaren 3ko 14/2007 Legean xedatutakoa bete behar dute. Era berean, lege horri lotuta egongo dira jatorria giza enbrioietan duten zelulak eta ehunak edota horietatik eratorritako zelula-lerroak erabiltzea espezifikoki eskatzen duten ikerkuntza-proiektuak.

c) Saiakuntza klinikoak xede dituzten proiektuek Medikamentu bidezko saiakuntza klinikoak arautzen dituen abenduaren 4ko 1090/2015 Errege Dekretuan ezarritakoa bete behar dute.

d) Animaliekin esperimentuak egitea dakarten proiektuek indarrean den lege-araubidean ezarritakoa bete beharko dute, eta, bereziki, otsailaren 1eko 53/2013 Errege Dekretuan ezarritakoa, esperimentuak egiteko eta bestelako helburu zientifikoetarako nahiz irakaskuntzarako erabiltzen diren animaliak babesteko oinarrizko arauak ezartzen dituenak.

e) Genetika aldatuta daukaten organismoak erabiltzea dakarten proiektuetan bete beharko dira, batetik, Genetika aldatuta daukaten organismoak bakarturik erabiltzeari, borondatez askatzeari eta merkaturatzeari buruzko apirilaren 25eko 9/2003 Legea, eta, bestetik, Lege hori garatzen duen araudi orokorra onesten duen urtarrilaren 31ko 178/2004 Errege Dekretua.

f) Agente biologikoak erabiltzea dakarten proiektuak, berriz, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legean eta hori garatzen duten errege-dekretuetan araututakoaren arabera egokitu beharko dira, agente biologikoak edukitzeak izan daitezkeen arriskuak direla-eta.

g) Azkenik, material genetikoa hartzea edo trukatzeko xede duten proiektuek honako hauek bete beharko dituzte: Dibertsitate Biologikoari buruzko Hitzarmena, Elikadurarako eta Nekazaritzarako Baliabide Fitogenetikoei buruzko Nazioarteko Ituna, eta uztailaren 26ko 30/2006 Legea, Mintegiko Haziei eta Baliabide Filogenetikoei buruzkoa.

3. oinarria.– Destinoko zentroak.

1.– Honako hauek izan daitezke destinoko zentro: laguntza-eskabideak aurkeztutako proiektu zientifikoaren arloan, prestigio akademikoa eta ikerketakoa aitortua izanik ikerketa-funtzioak esleiturik dituztenak, halako moldez ezen, berme baitira perfektzionamendu profesionala eta proiektuko helburu zientifikoak lortzeko.

2.– Destinoko zentroek, betiere, eskatzen dute hautagaiak bizileku finkoa aldatzea, onartutako mugikortasun-aldi guztian.

3.– Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo kokatuta egon beharko dute destinoko zentroek.

4. oinarria.– Laguntzen finantzaketa.

1.– Agindu honetan arautu laguntzak finantzatzeko, 200.000 euro bideratuko dira, era honetan banatuta, 1. artikuluan aipatu bi modalitateen arabera.

A modalitatea: 150.000 euro.

B modalitatea: 50.000 euro.

Modalitateetako batean ez bada agortzen aurrekontu erabilgarria, soberakina beste modalitateko proiektuak finantzatzeko erabili ahal izango da, baldin eta eskaerok ebaluazioa gainditu badute eta, lehentasun-ordenari jarraikiz, ez badute dirulaguntzarik jaso, modalitate hori finantzatzeko hasiera batean bideratutako diru-hornidura nahikorik ez zegoelako.

5. oinarria.– Erakunde onuradunak.

1.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean egiaztatutako eragileak dira laguntza hauen entitate onuradunak, eragile-kategoria hauetakoak:

Unibertsitateen ikerketa-egiturak.

Oinarritzko ikerketarako eta bikaintasun-ikerketarako zentroak (BERC).

Ikerketa kooperatiboko zentroak (IKZ).

Teknologia-zentroak.

Osasun-ikerketarako zentroak.

Edozelan ere, honako hau hartuko da entitate onuraduntzat: ikertzaileak integratzen dituen, entitate horrek nortasun juridiko propioa badauka, betiere.

Eskabidean eta deialdiaren ebazpenean izendaturik agertzen diren ikertzaileentzako eta jardueretarako soilik erabiliko dituzte laguntzak entitate onuradunek.

2.– Ezingo dira agindu honetan araututako dirulaguntzen onuradun izan inguruabar hauetako batean dauden pertsonak edo entitateak:

a) Epai irmo bidez, dirulaguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zigorra jaso ez izana edo prebikazio, eroskeria, diru publikoen erabilera bidegabea, influentzia-trafiko, iruzur eta ordainarazpen ilegal edo hirigintza-delituak direla eta zigorra jaso ez izana.

b) Borondatezko konkurtsoa deklaratzeko eskaria egin dutenak, prozeduraren batean kaudi-mengabekotzat jota daudenak, hartzekodunen konkurtsoan deklaratu daudenak (salbu eta horretan itun batek eraginkortasuna hartu badu), epailearen esku-hartzearen menpe daudenak edo desgaituta daudenak, konkurtsoa sailkatzeko epaian finkatutako desgaitze-aldia amaitu gabe dagoelarik.

c) Administrazioarekin egindako edozein kontratu ebazpen irmoz suntsiarazteko arrazoiak sorrarazi eta haien errudun deklaratu izan direnak.

d) Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateetako administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak ez egotea honako lege hauetan jasotako ezein kasutan: 3/2015 Legea, martxoaren 30ekoa, Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargudunen jarduna arautzen duena; 53/1984 Legea, abenduaren 26koa, Administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunena; edo Hauteskunde Erregimen Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako kargu hautetsiak izatea, lege horretan edo gai horiek arautzen dituen Euskal Autonomia Erkidegoko araudian ezarritako baldintzetan.

e) Egunean ez izatea indarrean dauden xedapenak ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, bat etorri Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduarekin (zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa), ez eta Euskadiko Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruko dirulaguntzak itzultzeari dagozkion betebeharrak ere.

f) Egoitza fiskala paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurralde batean izatea.

g) Egunean ez izatea dirulaguntzak itzultzeko betekizunen ordainketak, erregelamendu bidez zehaztutako terminoetan.

h) Dirulaguntzak lortzeko aukera galdu dutenak, ebazpen irmo baten bidez zehatuta egoteagatik.

i) Dirulaguntzak jasotzeko galarazpenek honako enpresa hauei ere eragingo diete: zuzentzen dituzten pertsonak edo beste inguruabar batzuk direla-eta, pentsa badaiteke –eraldaketa, bat-egitea edo ondorengotzaren ondorioz– beste enpresa batzuen jarraipena edo deribazioa direla, eta horietan ere pertsona edo inguruabar haiek izan badira.

e) eta g) apartatuetan aipatzen diren inguruabarrak bete beharrekoak dira bai deialdiko dirulaguntzen entitate onuradun bihurtzeko, bai emandako dirulaguntza likidatu arte onuradun izaten jarraitzeko; beraz, egiaztatuko da bete egiten direla dirulaguntza emateko orduan eta ordainketak egiteko orduan.

3.– Ezingo dira inolaz ere agindu honetan arautzen diren dirulaguntzen entitate onuradun izan Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikuluko 5. eta 6. apartatuetan aurreikusitako debeku-egoeraren baten eraginpean dauden elkarteak.

Halaber, ezingo dira entitate onuradun izan inskribatzeko administrazio-prozedura eten zaien elkarteak, ez-zilegitasun penalaren arrazoizko zantzuak egoteagatik, 1/2002 Lege Organikoaren

30.4 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, ez badago betiere, dagokion erregistroan inskripzioa egin daitekeela xedatzen duen ebazpen judizial irmorik.

4.– Ezingo dira inolaz ere agindu honetan arautzen diren dirulaguntzen entitate onuradun izan Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13.1 artikuluko h), i) eta j) hizkietan EAeko Administrazioan aplikatzekoa den araubidearen kasu espezifikoetan aurreikusitako debeku-egoeraren baten eraginpean dauden elkarteak.

6. oinarria.– Egonaldien eta hautagaien ezaugarriak eta laguntzen zenbatekoak.

1.– Egonaldien ezaugarriak eta baldintzak.

a) Egonaldiak 2026ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean hasiko dira.

b) Egonaldiak gutxienez bi hilabetekoak izango dira, eta gehienez seiokoak.

c) Emate-ebazpenean zehaztutako egunetan hasi beharko da egonaldia. Salbuespenez, eta egonaldia hasi baino lehen, hasteko eguna atzeratzeko eskatu ahal izango da, behar bezala arrazoitutako idazki baten bidez. Zientzia Politikako Zuzendaritzak erabakiko du halako egonaldia atzeratu daitekeen, eta behar bezala justifikaturik dagoenean baimena eman ahal izango du. Ikertzaileak ezinbestean 2026ko abenduaren 31 baino lehen hasi beharko du destinoko zentroan.

d) Ikertzaileko, egonaldi-proiektu bakarrerako izango da laguntza.

e) Proiektua destinoko zentro bakarrean egingo da.

2.– Egonaldietako absentziak, aldaketak eta etenak.

a) Etenik gabe egin behar dira egonaldiak zentro hartzailean. Proiektutik datozen zioen ondoriozko absentziak talde hartzaileko arduradunaren adostasunarekin egin beharko dira, eta entitate onuradunak Zientzia Politikako Zuzendaritzari jakinarazi beharko dizkio, kanpoan zein egunetan egon den eta hartarako arrazoia zein izan den zehaztuta.

b) Justifikatutako arrazoiengatik, baimena eman ahal izango da ikerketa-egonaldia aldi baterako eteteko.

Talde hartzailearen lan-ildoan integratutako ikerketa-proiektua etenik gabe garatzea eragozten duten egoerek nabarmen eragiten badute ikerketa egonaldian, eta, horren ondorioz, egonaldia eten beharko balitz, aukera egongo da eten den aldiko denbora berreskuratzeko.

Entitate onuradunak aurkeztu beharko dio etenaldia egiteko eskabidea Zientzia Politikako Zuzendaritzari, eta eskabide horrek talde hartzaileko ikertzaile arduradunaren adostasuna izan beharko du. Etenaldia egiteko arrazoia zehaztu beharko da, eta egonaldia osatzeko data berriak adierazi.

Egonaldi hori 2026an hasi beharko da, eta, salbuespenak salbuespen, bat etorri beharko du zentro hartzailearen aldi akademikoarekin edota ohiko jarduerarekin.

c) Egonaldiak baliatzeko epeetan nahiz dirulaguntzak emateko hasierako baldintzetan jazotzen den aldaketa orok izan beharko du Zientzia Politikako Zuzendaritzaren baimena.

Etenaldia egiteko eskabidea entitate onuradunak aurkeztu beharko du, eta zentro hartzailearen adostasuna izan beharko du. Edonola ere, egoki arrazoituak izan beharko dute eskabideek, eta, beharrezkoa bada, dokumentatuak. Proposamen egokia egitearren, Zientzia Politikako Zuzendaritzak, egoki irizten dien txostenak eskatu ahal izango ditu. Aldaketek ez dituzte funtsean aldatuko

laguntza emateko izan ziren baldintzak, hasteko epeei, egonaldiari, proiektuari, ikertzaileari edo zentro hartzaileari dagokienez, salbu eta horretarako kausak behar bezala egiaztatuak badira.

3.– Ikertzaileak.

Ikertzaile hautagaiek honako eskakizun hauek bete beharko dituzte:

a) Lotura funtzionariala edo kontratuzkoa. Eskatzaileek lotura funtzionariala edo kontratuzkoa izan behar dute, lanaldi osoan aritu behar dira, eta zerbitzu aktiboan egon behar dute. Hautagaiak entitate eskatzailearekiko duen lan-lotura egonaldiaren hasieran egiaztatu beharko da, eta egonaldia amaitu arte iraun beharko du.

a.1.– A. modalitatea: Entitate eskatzailearekin lotura iraunkorra edo kontratu mugagabea duen ikertzailea.

a.2.– B modalitatea: Entitate eskatzailearekin lotura iraunkorrik ez duen ikertzailea. Indarrean den loturaren indarraldiak gutxienez mugikortasuna amaitu artekoa izan behar du. Modalitate honetako eskakizuna da langile eskatzaileak irakasle- edota ikertzaile-lanpostu bat izatea kontso-lidazio bidean.

Zehazki, programa edo kategoria hauetako langileak onartuko dira: Ikerbasque Research Fellow programa, irakasle laguntzaile doktorea, irakasle atxikia, Ramon y Cajal programa, Juan de la Cierva programan sartzea, Miguel Servet programa.

b) Doktore izatea. Doktoregoak 2021. urtea baino lehen lortutakoa izan behar du.

c) Entitate eskatzailean gutxienez bi urteko antzinatasuna egiaztatzea.

d) Laguntzarik jaso ez izana, ez programa honen aurreko deialdietan, ez eta antzeko ezaugarriak dituen eta 2024an edo 2025ean ikerketa-egonaldi bat egitea dakarren beste edozeinetan ere.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu eta gero, laguntza-eskabidean jakinarazi gabeko ikerketa-egonaldi bat egiten badu ikertzaileak edo halako bat esleitzen bazaio, Zientzia Politikako Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio.

e) Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten unibertsitateetako ikertzaileek laguntza horiek jaso ahal izango dituzte, betiere ikerketa-talderen batean badaude eta talde horrek jaso eta indarrean badu «A» edo «B» taldea izatearen errekonozimendua, EAEko unibertsitate-sistemako ikerketa-taldeen jarduerak babesteko laguntzen deialdiaren gaineko ebazpen bidez.

f) Eskabidea egiteko unean, eskakizun guztiak beteta izan beharko dira, zerbitzu aktiboan egotearena salbu, eta hala eutsi beharko zaie egonaldia hasten den egunetik egonaldia amaitu arte.

4.– Laguntzen zenbatekoa.

a) Hileko 1.800 eurotik 2.700 eurora bitartekoa izango da ostaturako eta mantenurako laguntza. Destinoko herrialdeko baldintza ekonomiko eta sozialen arabera finkatuko da zuzkidura, eskabideak aurkezteko epea amaitzean, Nazioarteko Diru Funttsaren datu hau kontuan izanik: herrialdeen Barne Produktu Gordina (BPGd per capita, \$ ppp).

NDF-Nazioarteko Diru Funttsak emandako xede herrialdeen per capita errentako (\$ ppc) zifretatik abiatuz zehaztuko dira laguntzaren hileko zenbatekoak. Espainiako per capita errenta gisa 100 hartuz kalkulatzen da herrialde bakoitzaren errenta-indizea. 100 indizea edo txikiagoa duten herrialdeek hileko 1.800 euroko ordainsaria izango dute; gainerakoei, kalkulaturako indizearekiko proportzioan igoko zaie dagokien esleipena, 2.700 euro arte gehienez.

b) Laguntza gehigarria emango da destinoko zentrorako joan-etorriko bidaia bakarra guztiz edo partez ordaintzeko. Honako taula hau hartuko da kontuan zenbatekoa zehazteko:

Abiapuntuaren eta helmugaren arteko distantzia (km)	Bidaia-gastuetarako gehieneko laguntza (euro)
1.000 kilometrora arte.	300
1.001-2.500	600
2.501-11.000	1.000
11.000 kilometro baino gehiago	1.200

Kilometroak kalkulatzeko, erreferentziazat hartuko da <http://es.distance.to> estekaren bidez egindako kontsultaren emaitza. Agindu honen ondorioetarako, eskatzaileak ezarpen-zentroa duen probintziako hiriburua hartuko da jatorriko hiritzat.

Oro har, bidaietarako garraiobide publiko kolektiboa erabiliko da, gehienez egonaldiaren aurreko edota osteko 10 egun naturalen barruan. Salbuespen moduan, epe hori luzatu egin ahal izango da Zientzia Politikako Zuzendaritzaren baimenaz, baina ez da inolaz ere egonaldiaren luzapentzat joko.

Dena den, norberaren ibilgailua erabiltzeko baimena eman ahal izango da, kasuan kasuko ingurabarrak kontuan hartuta. Egonaldia hasi baino lehen eskatu beharko zaio baimena Zientzia Politikako Zuzendaritzari, aplikazioaren bidez. Eskaera aurkeztu ezean, bidaia ibilgailu partikularrean egitearen gastuak ez dira onartuko dirulaguntza justifikatzeko unean.

Bidaian norberaren ibilgailua erabiliz gero, kilometroko 0,29 euro ordainduko dira justifikatutako kilometroak.

Joan-etorriak egiteko bisa izapidetu behar izanez gero, 200 euroko diru-gehigarri bat emango da.

c) Deialdi honen bidez finantzatutako jardueretan parte hartzen duten entitate onuradunek bidaiaren laguntzeko aseguru bat izango dute, baldin eta egonaldiak atzerrian egiten badira; eta, interesdunak hala eskatuz gero, ezkontideak eta 25 urtetik beherako seme-alabek ere baliatu dezakete, egonaldian berarekin badira. Aseguru hori izatezko bikoteentzat ere baliagarri izango da, hala direla frogatuz gero ordenamendu juridikoan onartutako edozein probaren bidez. Laguntzaileen egonaldiaren datek bat egin beharko dute ikertzailearen egonaldiaren datekin.

7. oinarria.– Eskabideak formalizatzea eta aurkezteko epeak.

1.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 14.2 artikulua aplikatuz (administrazio publikoekin harremanak bitarteko elektronikoz izateko betebeharra ezartzen du), eskabideak inprimaki baten bidez bete beharko dira (I. eranskina). Inprimaki hori telematikoki eskuratu ahal izango da Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailaren egoitza elektronikoa, helbide elektronikoa honetan: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0286311>

Eskabidea elektronikoki sinatzeko, erakunde eskatzaileak entitate-txartela izan beharko du, eta, halakorik izan ezean, legezko ordezkariak alta hartu beharko du Eusko Jaurlaritzako Ordezkarrien Erregistroan (Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren 2012ko abenduaren 14ko Agindua - <http://euskadi.eus/ahalordeen-erregistro-elektronikoa/web01-sede/eu/>).

Aplikazioan, ziurtagiri elektronikoki bidez sartu beharko da (helbide elektronikoki honetan argitaratuta daude elektronikoki identifikatzeko onartutako sistemak: <https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/>). Aplikaziora sartzen diren pertsonen baimena ematen diote Zientzia Politikako Zuzendaritzari (deialdia kudeatzen duen organoa) nortasun-datuak administrazio eskudunean egiazta ditzan bitarteko elektronikoen bitartez edo eskuragarri dituen bestelako baliabideen bitartez.

2.– Behin eskabidea osorik beteta, eta 8. oinarrian zehaztutako dokumentu erantsiak aplikaziora sartuta, entitateak edo legezko ordezkariak elektronikoki sinatu beharko du eskabidea, bat etorritik, betiere, 1. apartatuan adierazitakoarekin; eta orduantxe geratuko da erregistraturik eskabidea. Sinadura elektronikoki bidez egindako eskabide bat baliozkoa izateko, erregistratuta geratu behar du. Hori ziurtatzeko, entitate eskatzaileak agirien erregistro-elektronikoa/aurkezpen-erregistroa eskura dezake, «Ikusi egiaztagiria E/E» aukeratuta. Ez da onartuko erabat modu elektronikoki bete eta erregistratu ez den eskabiderik.

3.– Agindu honetako laguntzen onuradunek Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14., 27. eta 42. artikuluetan araututako betebeharren araubidea bete beharko dute.

4.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, xedapen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

8. oinarria.– Eskatutako dokumentazioa.

Eskabidearekin batera, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira, bai eta aplikazio telematikoki sartu ere:

a) Egonaldian zehar egingo den ikerketa-proiektuari buruzko memoria. Egonaldiak hautagaiari eta entitate onuradunari ekar diezazkiokeen onurak jasoko ditu. Gehienez hiru orrialde.

b) Hautagaiaren curriculum vitae, inprimaki normalizatuan edo baliokidean, zeinetan jasoko baitira ikerketa-jardunean izandako azken sei urteetako merezimenduak.

Baldin eta hautagaitza batean ikerketa-lana eten egin bada egoera hauetakoren baten ondorioz, hots, iraupen luzeko aldi baterako lanerako ezintasuna; amatasuna; aitasuna; edoskitze-aldiko arriskua; adopzioa edo harrera; edo liberazioagatik, honako kargu hauetakoren bat betetzeko bada: unibertsitateko pertsona bakarreko kudeaketa-karguak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko zuzendaritza-karguak eta administrazio publikoetako karguak, bada, halakoetan, ziurtatutako etenaldi horren proportzioan luzatuko da ebaluatzeko ikerketa-jardueraren aldia, non eta ez den 10 astetik gorako amatasun edo aitasunagatik etenaldia (kasu horretan, ebaluatzeko aldia urtebete luzatuko da seme edo alaba bakoitzeko).

c) Zerbitzu-orria, zeinetan jasoko baitira antzintasuna, eta hautagaiaren eta entitate eskatzailearen arteko kontratu-harremana.

Emandako zerbitzuen orria aurkeztu ezin bada, entitate eskatzailearen ziurtagiri bat aurkeztu beharko da.

d) Entitate eskatzailean zerbitzu aktiboan egotearen ziurtagiria. Eskabidea egin den unean zerbitzu aktiboan egotearen ziurtagiria ez bada aurkezten, aipatu dokumentua aurkezteko hamabost eguneko epea emango da egonaldia hasi aurretik.

e) Ikerketa-jardueraren aldi baterako etena justifikatzen duten egiaztagiriak, 6.2.b oinarrian jasotako kasuen arabera.

f) Talde hartzailearen historia zientifikoa eta akademikoa, zeinetan jasoko baita ikertzaile-talde hartzaileko arduradunaren curriculum vitae, azken sei urteetakoa, formatu normalizatuan (txantiloia aplikazioan jasota dago).

g) Laguntza jasoz gero, ikerketa-taldeko arduradunaren konpromisoa, eskatutako epealdian hautagaia bere taldean onartzekoa. Dokumentu horrek egonaldiaren helburuari eta garatuko diren jardueri buruzko deskripzioa jaso beharko du.

h) Hautagaiari lizentzia ematea edo emateko konpromisoa hartzea. Entitate eskatzaileak emango du lizentzia, eta ikerketako errektoreordeak edo pertsona eskudunak sinatuko du. Dokumentu horrek egingo den egonaldiaren datak eta helburua jaso beharko ditu.

i) Hautagaiaren ikerketa-jardueraren kalitatearen adierazleei buruzko laburpen eguneratua (argitalpen zientifikoak, ikerketa-proiektuak, biltzarrak, tesiak, patenteak). Aplikazioan, eskuragarri dago agiri horren txantiloia bat.

j) Ikerketa-talde hartzaileko arduradunari dagokionez, ikerketa-jardueraren kalitatearen adierazleei buruzko laburpen eguneratua (argitalpen zientifikoak, ikerketa-proiektuak, biltzarrak, tesiak, patenteak). Aplikazioan, eskuragarri dago agiri horren txantiloia bat.

k) Entitate onuradunek egunean izan beharko dituzte zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, hala ezarrita baitago Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamenduko 22. artikuluan. Organo kudeatzaileak automatikoki eta behar beste aldiz egiaztatuko du zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean daudela, eta, horretarako, ez du onuradunen baimenik beharko, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14. artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Hala ere, entitate eskatzaileak berariaz uko egin diezaioke baimen horri, eta, halakorik egiten badu, dagokion egiaztagiria aurkeztu beharko du.

Baldintza hori bete beharko da hala onuradun izateko nola izaera horri eusteko dirulaguntzaren likidazioa egin arte. Alde horretatik, egiaztapenak egingo dira bai dirulaguntza ematen denean bai ordainketak egiten direnean.

9. oinarria.— Laguntzak kudeatzeko organoa.

Zientzia Politikako zuzendariak kudeatuko ditu agindu honetan aurreikusitako laguntzak.

10. oinarria.— Eskabideetako akatsak zuzentzea.

Baldin eta agindu honen 8. oinarrian eskatutako zerbait betetzen ez duen eskabideren bat edo agiriren bat aurkezten bada, Zientzia Politikako Zuzendaritzak hamar eguneko epea emango die eskabideen sinatzaileei hutsak zuzendu ditzaten edo arauzko agiriak aurkez ditzaten, eta ohartaraziko die ezen, agindutakoa bete ezean, eskaeran atzera egin dutela ulertuko dela. Hala agintzen da urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 eta 21.1 artikuluetan (39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena).

Zuzenketak egiteko errekerimenduak 13. oinarriko hirugarren apartatuan ezarritako prozedurari jarraikiz jakinaraziko dira.

11. oinarria.— Ebaluazioa.

1.— Hautaketa-batzorde batek baloratuko ditu eskabideak. Hauek izango dira batzordekideak: Zientzia Politikako zuzendaria, Amaia Esquisabel Alegría (batzordeburua); Berrikuntzako zuzendaria, Maialen Agirre Pinedo; eta teknikari bat, Eneko Gallettebeitia Laka (idazkaria).

Batzordeak eskabide bakoitzari buruzko txostenak eska diezazkieke hautagaiak diharduten arloetan itzal handia eta ebaluazioan esperientzia duten ikertzaileei.

Batzordeak Zientzia Politikarako zuzendariari baloratzeko irizpideekin bat egindako ebaluazioaren emaitzak jasotzen dituen txostena aurkeztuko dio.

2.– Laguntzen esleipendunak hautatzeko, batzordeak irizpide hauek hartuko ditu kontuan, eskabideak balioesteko orduan:

A) Egingo den proiektuaren edo jardueraren bideragarritasuna eta interes zientifikoa, destinoko zentroa eta proposatutako egutegia kontuan izanik (gehienez ere, 12,5 puntu).

Puntu honetan, azpi-irizpide hauek baloratuko dira, honela:

1.– Helburuen zehaztapen-maila (gehienez ere, 1,5 puntu). Bereziki kontuan hartuko dira argitasuna, zehaztasuna, mugaketa eta kalitate zientifikoa. Gainera, lanaren metodologiarekiko eta irismenarekiko koherentzia-mailari ere erreparatuko zaio.

2.– Proiektuaren berritasuna eta garrantzia (gehienez ere, 2 puntu). Bereziki kontuan hartuko da ikerketa-ildo berriak irekitzeko edo egungo arazo zientifikoak konpontzeko ekarpen-maila. Halaber, aintzat hartuko da proiektua berrikuntza-itsasargiekin eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Euskadi 2030 Planarekin duen lerrokatze-maila.

3.– Hautagaiaren eta talde hartzailearen gaitasuna proposatutako helburuak burutzeko (gehienez ere, 2 puntu). Bereziki kontuan hartuko dira proiektuaren xede den ikerketa-arloko ikerketa-esperientzia eta proposatutako helburuak proposatutako egutegian eta destinoko zentroaren baldintzetan efikaziaz betetzeko beharrezko baliabide teknikoak eta materialak.

4.– Metodologiari, lan-planari eta aurreikusitako kronogramari egokitzea (gehienez ere, 3 puntu). Bereziki kontuan hartuko da zehaztasun-maila, koherentzia eta lan-plangintzaren eta proposatutako metodologiaren barne-logika. Halaber, kontuan hartuko da zer xehetasun-mailarekin identifikatu diren proiektuaren mugarri nagusiak kronogramaren barnean, baita horien bideragarritasuna ere, planteatutako helburuei eta egutegiari begira.

5.– Lortu nahi diren emaitzak eta pertsona eta erakunde eskatzaileei ekar diezazkiekeen onura (gehienez ere, 4 puntu). Bereziki kontuan hartuko da proposatutako ikerketa-proiektuak hautagaiaren ikerketa-ibilbidea hobetzeko duen ahalmenean, baita ere egonaldiak zer eragin izango duen hautagaiak Euskadin etorkizunean garatuko dituen ikerketa-ildoetan. Bestalde, kontuan hartuko da proiektuak entitate eskatzailearen ikerketa-ildoak edo arlo estrategikoak indartzeko ahalmena izatea.

B) Azken sei urteetan hautagaiak ikerketa-jardunean lortu dituen merezimendu zientifikoak, akademikoak eta kudeaketakoak (gehienez ere, 20 puntu).

Puntu honetan, kontuan hartuko da hautagaiaren baten kasuan ikerketa-lana eten den egoera hauetakoren baten ondorioz: iraupen luzeko aldi baterako lanerako ezintasuna; amatasuna; aitatasuna; edoskitze-aldiko arriskua; adopzioa edo harrera, edo liberazioa, honako kargu hauetakoren bat betetzeko bada: unibertsitateko pertsona bakarreko kudeaketa-karguak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko zuzendaritza-karguak eta administrazio publikoetako karguak. Horretarako, ziurtatutako etenaldiarekiko proportzionalki luzatuko da ebaluatzeko ikerketa-jardueraren aldia, salbu eta 10 astetik gorako amatasun edo aitatasunagatiko etenaldietan, horietan seme edo alaba bakoitzeko urtebete luzatuko baita ebaluatzeko aldia.

Puntu honetan, azpi-irizpide hauek baloratuko dira, honela:

1.– Ibilbide zientifikoa eta argitalpenen kalitatea (gehienez ere, 4 puntu). Atal honetan, kontuan hartuko dira liburuak, liburuen kapituluak eta aldizkari zientifikoetako artikuluak, dagozkien ezagutza-arloen berezitasunei erreparatuz. Aldizkarien kasuan, balio berezia emango zaie beren esparruko erreferentzia-indizeei, Ikerketa Jardueraren Ebaluazio Batzorde Nazionalaren 2024ko abenduaren 9ko Ebazpenean jasotako irizpide espezifikoaren arabera. Ebazpen horretan argitara eman ziren ebaluazio-esparru bakoitzean onetsitako irizpide espezifikoak.

2.– Ikerketa-proiektuetan edo jardueretan parte hartzea (gehienez ere, 4 puntu). Kontuan hartuko dira proiektuek autonomia-erkidegoko, Estatuko edo nazioarteko norgehiagoka-deialdi publikoetan lortutakoak izatea; zehazki, Europar Batasuneko, nazioarteko beste organismo edo erakunde batzuetako, estatu-planetako edo autonomia-erkidegoetako programetan. Proiektu horiek ikerketa ebaluatzeko agentzia ofizial eta independente baten kanpo-ebaluazioa egin behar zaie. Bestelako ikerketa-jardueren kasuan, kontuan izango dira gauzatutako ikerketa-jardueraren ezagutza transferitzeko kontratu edo hitzarmenekin lotura dutenak. Kontuan izango da, halaber, ikerketa-proiektu edo jarduera horien lidergoa.

3.– Ekarpen bereziak ikerketa-arloan (gehienez ere, 4 puntu). Ekarpen berezi moduan, hauek balioetsiko dira: Europako ikerketa-partzuergoetan parte hartzea, Europako Ikerketa Kontseiluaren laguntzak lortzea, Europako Berrikuntza Kontseiluaren laguntzak lortzea, ikerketa-programak koordinatzea eta zientzia-azpiegiturak sortzea.

4.– Doktoretza-tesien zuzendaritza (gehienez ere, 3 puntu). Kontuan hartuko dira amaitutako doktorego-tesien kopurua, eta, horien artetik, nazioarteko aipamena lortu dutenen portzentajea.

5.– Patenteak eta ezagutza-transferentziako beste ekintza batzuk (gehienez ere, 3 puntu). Kontuan hartuko da patenteen ustiaketa-maila eta transferitutako aktibo zientifiko-teknologikoak (*know-how*), lizentzia-kontratu bidez egiaztatuta. Ustiaketan egon gabe emandako patentei dago-kienez, kontzesioa aurretiazko azterketarekin egin bada baloratuko dira soilik (B2 motakoak, 2020. urteaz aurretikoetarako). Kontuan hartuko da patentearen babes-hedapena (Estatukoa, Europakoa, nazioartekoa) eta balorazio hobea jasoko dute babes handiagoa duten kasuek.

6.– Nazioarte-mailako garrantzia duten biltzarretan parte hartzea (gehienez ere, 2 puntu). Atal honetan, bereziki kontuan izango dira nazioarteko biltzarretan egindako ekarpenak (hitzaldi plenarioak, ahozko komunikazioak eta poster erako ekarpenak).

C) Azken sei urteetan, talde hartzaileko ikertzaile arduradunak lortu dituen merezimendu zientifikoak eta akademikoak (gehienez ere, 12,5 puntu).

Puntu honetan, kontuan hartuko da hautagairen baten kasuan ikerketa-lana eten den egoera hauetakoren baten ondorioz: iraupen luzeko aldi baterako lanerako ezintasuna; amatasuna; aitatasuna; edoskitze-aldiko arriskua; adopzioa edo harrera, edo liberazioa, honako kargu hauetakoren bat betetzeko bada: unibertsitateko pertsona bakarreko kudeaketa-karguak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko zuzendaritza-karguak eta administrazio publikoetako karguak. Horretarako, ziurtatutako etenaldiarekiko proportzionalki luzatuko da ebaluatzeko ikerketa-jardueraren aldia, salbu eta 10 astetik gorako amatasun edo aitatasunagatiko etenaldietan, horietan seme edo alaba bakoitzeko urtebete luzatuko baita ebaluatzeko aldia.

Puntu honetan, azpi-irizpide hauek baloratuko dira, honela:

1.– Ibilbide zientifikoa eta argitalpenen kalitatea (gehienez ere, 2,5 puntu). Atal honetan, kontuan hartuko dira liburuak, liburuen kapituluak eta aldizkari zientifikoetako artikuluak, dagozkien

ezagutza-arloen berezitasunei erreparatuz. Aldizkarien kasuan, balio berezia emango zaie beren esparruko erreferentzia-indizeei, Ikerketa Jardueraren Ebaluazio Batzorde Nazionalaren 2024ko abenduaren 9ko Ebazpenean jasotako irizpide espezifikoaren arabera. Ebazpen horretan argitaratu eman ziren ebaluazio-esparru bakoitzean onetsitako irizpide espezifikoak.

2.— Ikerketa-proiektuetan edo jardueretan parte hartzea (gehienez ere, 2,5 puntu). Kontuan hartuko dira proiektuek autonomia-erkidegoko, Estatuko edo nazioarteko norgehiagoka-deialdi publikoetan lortutakoak izatea; zehazki, Europar Batasuneko, nazioarteko beste organismo edo erakunde batzuetako, estatu-planetako edo autonomia-erkidegoetako programetan. Proiektu horiek ikerketa ebaluatzeko agentzia ofizial eta independente baten kanpo-ebaluazioa egin behar zaie. Bestelako ikerketa-jardueren kasuan, kontuan izango dira gauzatutako ikerketa-jardueraren ezagutza transferitzeko kontratu edo hitzarmenekin lotura dutenak. Kontuan izango da, halaber, ikerketa-proiektu edo jarduera horien lidergoa.

3.— Ekarpene bereziak ikerketa-arloan (gehienez ere, 2,5 puntu). Ekarpene berezi moduan, hauek balioetsiko dira: Europako ikerketa-partzuergoetan parte hartzea, Europako Ikerketa Kontseiluaren laguntzak lortzea, Europako Berrikuntza Kontseiluaren laguntzak lortzea, ikerketa-programak koordinatzea eta zientzia-azpiegiturak sortzea.

4.— Doktoretza-tesien zuzendaritza (gehienez ere, 2 puntu). Kontuan hartuko dira amaitutako doktorego-tesien kopurua, eta, horien artetik, nazioarteko aipamena lortu dutenen portzentajea.

5.— Patenteak eta ezagutza-transferentziako beste ekintza batzuk (gehienez ere, 1,75 puntu). Kontuan hartuko da patenteen ustiaketa-maila eta transferitutako aktibo zientifiko-teknologikoak (*know-how*), lizentzia-kontratu bidez egiaztatuta. Ustiaketan egon gabe emandako patentei dago-kienez, kontzesioa aurretiazko azterketarekin egin bada baloratu da soilik (B2 motakoak, 2020. urteaz aurretikoetarako). Kontuan hartuko da patentearen babes-hedapena (Estatukoa, Europa-koa, nazioartekoa) eta balorazio hobea jasoko dute babes handiagoa duten kasuek.

6.— Nazioarte-mailako garrantzia duten biltzarretan parte hartzea (gehienez ere, 1,25 puntu). Atal honetan, bereziki kontuan izango dira nazioarteko biltzarretan egindako ekarpenak (hitzaldi plenarioak, ahozko komunikazioak eta poster erako ekarpenak).

D) Hautagaia hartuko duen zentroaren kalitatea, proiektua aurkeztu den zientzia-arloan (gehienez ere, 5 puntu).

Unibertsitate-zentroen kasuan, zentro hautatuaren prestigioa baloratzeko, kasuan kasuko zentroak 2024ko Academic Ranking of World Universities sailkapenean (Shanghai rankinga) zein postutan dagoen hartuko da kontuan: 1-100 bitarteko postuetan daudenei, 5 puntu; 101-200 bitarteko postuetan daudenei, 4 puntu; 201-300 bitarteko postuetan daudenei, 3 puntu; 301-400 bitarteko postuetan daudenei, 2 puntu; 401-500 bitarteko postuetan daudenei, 1 puntu; eta 501. postuan eta hurrengoetan daudenei, 0,5 puntu.

B) eta C) apartatuetan, 8. oinarriko i) eta j) apartatuetan adierazitako dokumentuetan barne hartutako datuetatik abiatuz egingo da alderdi horien balorazioa, eta eskuratutako CVetan egiaztatu beharko da. Aurkeztutako ebidentziak bakarrik balioetsiko dira.

12. oinarria.— Laguntzak esleitzeko prozedura.

Norgehiagoka-prozeduraren bidez esleitu da laguntzak, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 19.1 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Hartarako, deialdi bakoitzean aurkeztu eta onartu diren eskariak alderatuko dira, haien artean hurrenkera bat ezartzeko, 11. oinarrian ezarritako esleipen-irizpideei jarraikiz; eta guztizko puntuazioaren % 50 gainditu eta balorazio handiena lortu dutenak bakarrik esleituko dira, hain justu ere agindu honen 4. oinarrian kontsignatutako aurrekontu-kreditua agortu arte.

Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko, gaikuntza berdintasunean berdinketa gertatuz gero sexu ezberdineko ikertzaileen artean lortutako puntuazioan, ikertzaile emakumearen aldeko ebazpena emango da.

Sexu bereko ikertzaileen arteko berdinketak eskabideak betetzeko aplikazioak txikitik handira ematen duen ausazko zenbakiaren arabera ebatziko dira. Zenbaki hori aplikazio telematikoa sorzen den eskaera-orrian agertuko da.

13. oinarria.— Ebaztea eta jakinaraztea.

1.— Emandako laguntzak esleitzeko eta horien zenbatekoak zehazteko, hautaketa-batzordeak txosten bat egingo du, ebaluazioaren emaitzak bilduko dituen, eta Zientzia Politikako Zuzendaritzak egingo du ebazpen-proposamena, deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo sei hilabeteen barruan.

Proposamenak hauek jasoko ditu: erakunde onuradunen zerrenda eta dagozkien zuzkidura ekonomikoak, dagoen kredituaren mugara arte xehatuak, eta, erabilgarri dagoen aurrekontuaren ondorioz laguntzarik jaso ez duten erreserben zerrenda. Horrez gain, ukatutako eskabideen zerrenda ere emango da, ukatzeko arrazoiak adierazita, baita baztertutako eskabideen zerrenda ere, baztertzeko arrazoiak zehaztuta.

Ebazpenak hauek jasoko ditu: espedientearen erreferentzia-zenbakia, entitate onuraduna, laguntzaz baliatuko den ikertzailearen NANA, ebaluazioan erdietsitako guztizko puntuazioa, egonaldiaren hasiera- eta amaiera-datak, egonaldia egingo den zentroa eta herrialdea, eta zuzkidura ekonomiko xehatua (ordainsariak, bidaiak eta bisa).

2.— Egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuz jakinaraziko da aipatutako ebazpena: <https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa>. Era berean, jakinarazpen elektronikoa bat bidaliko da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalera (<https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>). Ziurtagiri elektronikoa- ren bidez sartuko da bertara.

Abisu bat bidaliko da interesdunak eman duen gailu elektronikora edo helbide elektronikora, eta horren bidez adieraziko zaio jakinarazpen bat duela aipatutako egoitza elektronikoa.

3.— Aurreko 2. atalean ezarritakoaz gain, Zientzia Politikarako Zuzendaritzak egindako argitalpenen abisuak bidali ahal izango dizkie interesdunei, SMS edo posta elektronikoa bidez. Abisu horiek ez dute inolaz ere egindako jakinarazpenaren ondorioz izango.

4.— Uko-egiteen kasuan, erreserben zerrendan ageri diren eskatzaileei emango zaizkie laguntzak, dagokion ebazpenaren bidez, baldin eta uko-egite horiek emate-ebazpen hau argitaratu eta hurrengo hamar egunetan egiten badira. Laguntza horiek emandako azken laguntzaren ondoren dauden pertsonen emango zaizkie, baldin eta proiektuak 2026ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean egiten badira.

Ondorio horietarako, laguntzak emateko proposamena jakinaraziko die laguntzak emango dituen organoak interesdunei, hamar eguneko epe luzaezinean onar dezaten. Behin proposamena onartuta, Zientzia eta Berrikuntzako sailburuordeak laguntza onartzeko ebazpena emango du, eta interesdunei jakinaraziko die.

5.– Baldin eta 1. apartatuan ezarritako epean berariazko ebazpenik ematen eta jakinarazten ez bada, interesdunek ulertu ahal izango dute beren eskariak ezetsiak izan direla.

6.– Ebazpen horren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango diote Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

7.– Emandako laguntzen zerrendak publikotasuna izan dezan, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, jakinarazpen hori egin eta sei hilabeteko epean.

8.– Eskaera egiteko unean 6.3.a) oinarrian adierazitakoa betetzen ez duten hautagaiek eskakizun hori betetzen dela ziurtatzeko dokumentua aurkeztu beharko dute, laguntza emateko ebazpena jakinarazten denetik hamabost eguneko epean. Hori egin ezean, laguntza jasotzeko eskubidea galduko dute, eta 12. oinarrian deskribatutako prozedurarekin bat emango dira askatutako kantitateak.

14. oinarria.– Entitate onuradunen betebeharrak.

Agindu honetako laguntzen onuradunek Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14., 27. eta 42. artikuluetan araututako betebeharren araubidea bete beharko dute. Zehazki, eginbehar hauek bete beharko dituzte:

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Dirulaguntza emateko ebazpenari buruzko jakinarazpena egiten denetik hamar egun igarota onuradunak berariaz uko egin ez badio laguntzari, onartu duela ulertuko da.

b) Dirulaguntza zein helburutarako eman zen, harexetarako erabiltzea.

c) Egonaldia osorik betetzea.

d) Lekualdatutako ikertzaileari emandako zenbatekoak ordaintzea. Entitate onuradunak, iker-tzailearengandik destinoko zentroan hasiko delako jakinarazpena jasotakoan eta organo emailetik laguntzaren % 80ko ordainketa aurreratua jasotakoan, tokiz aldatu zen ikertzaileari ordainduko dio zenbateko hori.

Baldin eta zentro onuradunak bere gain hartu baditu bidaia, ostatu edo bisari dagozkion zenbatekoak, horiek ez zaizkio ordaindu beharko ikertzaileari.

Behin jarduera amaitu eta laguntza likidatutakoan, erakunde onuradunak likidazio horren ondoriozko zenbatekoa helaraziko dio ikertzaileari.

e) Gauzatzen diren harako hamabost eguneko gehieneko epearen barruan, honako hauek jakinaraztea: destinoko zentroan altak, jarduerak etetea, aldi bateko kanpoan izateak, uko egiteak eta gainontzeko gorabeherak; guztia ere, honako helburu hauekin, batetik, Zientzia Politikako Zuzendaritza guzti horretaz jakitun izan dadin, eta, bestetik, beharrezko bada, berariazko baimena eman dezan.

f) Kontrol Ekonomiko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari beren eginkizunetan dihardutela deialdi honen kontura jasotako dirulaguntzen inguruan eskatzen duten informazioa eman behar diete.

g) Programa honen babespean egindako jarduerak dakartzaten emaitzak argitaratu edo zabaltzeko behar izanez gero, berariaz aipatzea Eusko Jaurlaritzako Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailaren Ikertzaile Doktoreentzako Mugikortasun Programaren finantzaketa duela. Horretarako, material edo argitalpen guztietan berariaz aipatuko da programa horren bidez finantzatu dela, eta

leku nabarmen batean jarriko dira Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailaren ikurra eta «Ego-naldi hau Ikermugikortasuna 2026 programaren bitartez finantzatuta dago» adierazpena.

15. oinarria.— Laguntzari uko egitea.

1.— Zientzia Politikarako zuzendariari jakinaraziko zaizkio uko-egiteak, entitate onuradunak eta laguntzaren ikertzaile onuradunak sinatutako idazki baten bidez. Bertan adieraziko da zein diren uko egiteko arrazoiak eta uko-egite horrek zein egunetatik aurrera izango dituen ondorioak. Uko-egite hori aplikazio telematikoaren bidez jakinarazi beharko da, ondorioak izan baino gutxie-nez hamar egun lehenago.

2.— Uko-egiteak Zientzia eta Berrikuntzako sailburuordearen ebazpen baten bidez onartuko dira.

Uko-egite hori gauzatzen den egun berean hasiko dira haren ondorio ekonomikoak. Hala ere, bidegabeko ordainketak gauzatu badira, diru-zenbateko horiek itzuli beharko dira, deialdiaren bal-dintzen gutxieneko eskakizunak betetzen badira, betiere.

16. oinarria.— Laguntza ordaintzea.

1.— Entitate onuradunari ordainduko zaio laguntza.

2.— Emandako laguntzak zatika ordainduko dira, bi alditan.

Haietarik lehena, emandako laguntzaren % 80koa, honelaxe egingen da: Zientzia Politikako Zuzendaritzan, erakunde onuradunak zentro hartzailean hasteari buruzko egiaztagiria aurkeztu ostein.

Bigarren zatia, berriz, 2027. urtean ordainduko da, jarduera bukatzean. Zehazki, laguntzaren likidaziotik ateratzen den zenbatekoa ordainduko da, hurrengo oinarrian eskatutako agiriak aur-keztu ostein, betiere.

17. oinarria.— Dirulaguntzak justifikatzea eta haien jarraipena.

1.— Laguntza jasotzen duten entitateek justifikatu egin beharko dute finantzaketaren xede zen jarduera burutu dutela; horretarako, informatika-aplikazioaren bitartez, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte, hilabeteko epean, jarduera bukatzen denetik aurrera:

a) Egindako egonaldiaren gainean, ikerketa-talde hartzaileko arduradunak emandako egiazt-a-giria, zeinetan berariaz zehaztuko baitira hasiera- eta bukaera-egunak.

b) Amaierako memoria, balantze zientifikoarekin batera. Bertan deskribatuko da egindako lana, argitalpenen, patenteen edo ikerketaren bestelako emaitzen erreferentzia barne hartuta. Entitate onuradunaren legezko ordezkariaren oniritzia jaso beharko du dokumentuak.

c) Emandako laguntzaz egindako gastuaren ziurtagiria. Ostatu-gastuei, bidaia-gastuei eta bisa-izapidetzeari —halakorik balego— dagozkien fakturak edo dokumentu baliokideak aurkeztuko dira. Entitate onuradunaren legezko ordezkariak sinatu beharko du dokumentu hori.

d) Entitate onuradunak ikertzaileari egindako ordainketen egiaztagiria.

2.— Justifikatutako gastuak emandako dirulaguntza baino txikiagoak badira eta ez-betetzerik ez badago, dirulaguntza gutxitu egingo da justifikatu ez den kopurua kenduta, eta jasotako diru-laguntzak proportzioan itzuliko dira, dagokion prozedurari jarraituz. Prozedura hori Zientzia eta Berrikuntzako sailburuordeak amaituko du ebazpen batez, non hasierako ebazpena aldatuko baita. Murritzeta horrek ez dio eragingo ostatu-gastuak justifikatu beharrari.

3.– Egoki iritziz gero, Zientzia Politikako Zuzendaritzak informazio osagarria eskatu ahal izango du, eta, horretaz gain, zuzendaritzari berari atxikitako pertsona baten edo batzuen gomendio utzi dezake emandako laguntzaren segimendua, laguntza zertan erabili den ikusteko.

18. oinarria.– Laguntzen bateraezintasuna.

Laguntza hauek bateraezinak dira helburu bererako ematen den beste edozein laguntzarekin.

19. oinarria.– Ez-betetzeak eta laguntza itzultzea.

1.– Laguntzaren onuradunak edota aplikazio-zentroak edo entitate kontratatzaileak Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan zehaztutako kasuetako batean badaude, edo betetzen ez badituzte agindu honetan eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan aipatutako baldintzak edo betebeharrak, edo egiaztatzen bada ez dituztela betetzen dirulaguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzak edo eskakizunak, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan eta dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritakoaren arabera, hasiera emango zaio laguntza jasotzeko eskubidea galtzeko eta, hala badagokio, jasotako zenbatekoak eta dirulaguntzen arloan aplikatzekoak diren berandutze-interesak itzultzeko prozedurari, zeina bat baitator araudiarekin, hori baita Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko Legearen 40. artikuluko oinarrizko araudiaren arabera aplikatu beharrekoa.

Ondorioz, onuradunak ezin izango du laguntza ordaintzea eskatu, eta, hala dagokionean, jasotako zenbatekoak itzuli beharko ditu, eta laguntza ordaindu zenetik aurrera sortuko ziren legezko interesak eskatuko zaizkio, baldin eta onuradunak egoera hauetakoren batean badaude:

a) Onuradunek, guztiz edo partez, bete gabe utzi badituzte deialdi honen oinarriak, dirulaguntzei buruzko araudi orokorrekoak edo dirulaguntza emateko ebazpenean erabakitako baldintzak.

b) Dirulaguntza emateko eskatzen diren datuak ezkutatu edo aldatzen badituzte edo eskatutako informazioa iruzurrez manipulatzaren badute.

c) Proposatutako helburuekin edo ezarritako epeekin bat ez datorren jarduera burutzea, Zientzia Politikako Zuzendaritzaren baimenik gabe.

d) Zientzia Politikako Zuzendaritzak, diruz lagundutako egintzen segimendua egiterakoan, gas-tua proposatutakoarekin eta esleitutakoarekin bat ez datorrela egiaztatzen badu.

2.– Halaber, laguntza emateko kontuan izandako baldintzetan jazotako aldaketa orok berekin ekar dezake hura emateko ebazpena aldatzea, baldin eta onuradun izateko deialdi honen 1. oinarrian eta 6. oinarriaren 1., 2., eta 3. zenbakietan ezarritako gutxienezko baldintzak betetzen badira.

3.– Bestalde, aipatutako zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat joko dira, ondorio guztietarako.

Halaber, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Lege Orokorraren 36. artikuluan ezarritakoa bete beharko da.

20. oinarria.– Datuen babesa.

Eskatzaileen datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta izen honetako tratamendu-jardueran sartuko dira: (ikerketa sustatzeko) dirulaguntzak eta laguntzak. Informazio hau barne hartuko du:

Arduraduna: Zientzia Politikako Zuzendaritza; Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saila.

Xedea: Ikerketa finantzatzea eta bultzatzea.

Legitimazioa:

Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.

38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemarena.

20/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoa.

Hartzaileak:

Euskal Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

Ogasun eta Finantza Saila.

Patente eta Marken Espainiako Bulegoa.

Eskubideak: Eskatzaileak eskubidea du datuak eskura izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

Informazio gehigarria: Datuen babesari buruzko informazio gehigarria eta xehea dago gure web-orrian: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/054300-cap2-eu.shtml>

Araudia:

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>).

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

II. ERANSKINA

ESKAERA-INPRIMAKIA	ERREFERENTZIA	
	BARNE-KODEA	
IKERTZAILE DOKTOREENTZAKO MUGIKORTASUN-PROGRAMA		

A.– ENTITATE ESKATZAILEA ETA HAUTAGAI ARDURADUNA

ENTITATE ESKATZAILEA			
Sozietatearen izena			
IFK			
Helbidea		PK	
Telefonia			
Helbide elektronikoa			

HAUTAGAIA					
Abizenak, izena				Jaioteguna	
NAN/AIZ		Sexua	☐ Gizonezkoa ☐ Emakumezkoa		
Helbide elektronikoa		1. telefonia		2. telefonia	
Doktore-titulua zein datatan lortua					

Departamentua	
Ikastegia	
Arloa	

B.– EGONALDIAREN EZAUGARRIAK

ZER PROIEKTU / IKERKETA-PLAN DEN LAGUNTZAREN XEDE			
Izenburua			
Sektore sozioekonomikoa			
Hasiera-data		Amaiera-data	

2025eko azaroaren 21a, ostirala

APLIKAZIO-ZENTROA (ALEGIA, NON EGINGO DEN EGONALDIA)			
Entitatea			
Zentroa			
Saila			
Herria		Herrialdea	
Helbide osoa			
Bisa izapidetzea		Bidaia-asegurua ezkontidearentzat edota seme-alabentzat ere baliagarri izatea (**)	

(**) Eskabide-orriari dokumentu bat erantsi behar zaio, datu hauek dituenak: Aseguruan sartu beharreko pertsona guztien izen-abizenak, jaioteguna eta NAN-zk.

Erantsi familia-liburuaren fotokopia edo haren baliokidearena.

Gorde guztiak dokumentu bakar batean, eta igo aplikaziora.

Aplikazio-zentroaren ikertzaile-taldeko arduraduna					
Izena		1. abizena		2. abizena	

HAUTAGAIA HARTUKO DUEN ZENTROAREN IZAERA, HARK AURKEZTUTAKO PROIEKTUAREN ARLO ZIENTIFIKOARI DAGOKIONEZ	
ARWU sailkapenean duen postua (Shangaiko sailkapena)	
Beste sailkapen batzuetan duen postua (zehaztu sailkapena)	
Zentro hartzailearen beste kalitate-adierazle batzuk	

C.- LEHENDIK JASOTAKO MUGIKORTASUNERAKO LAGUNTZAK					
Jaso al ditu hautagaiak ikertzaileentzako hobekuntza- eta mugikortasun-programaren laguntzak?					
	BAI	☐		EZ	☐

Laguntza-programa	Hasiera-data	Amaiera-data	Entitate finantzatzailea

D.– ALDI BATERAKO ETENA IKERKETA-LANEAN					
Azken urteotan, izan al da etenaldiren bat ikerketa-lanean egoera hauetako baten ondorioz?: iraupen luzeko aldi baterako lanerako ezintasuna; amatasuna; aitasuna; edoskitze-aldiko arriskua; adopzioa edo harrera; edo liberazioa honako kargu hauetakoren bat betetzeko: unibertsitateko pertsona bakarreko kudeaketa-karguak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko zuzendaritza-karguak eta administrazio publikoetako karguak. Adierazi dagokiona.					
	BAI	☐		EZ	☐

Etenaldiaren arrazoia	Hasiera-data	Amaiera-data	Oharrak

III. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Entitate eskatzailea: _____ IFK: _____

Legezko ordezkaria: _____ NAN: _____

ENTITATE ESKATZAILEAREN LEGEZKO ORDEZKARIAK ADIERAZTEN DU EZEN ENTITATEAK BETETZEN DITUELA DIRULAGUNTZEN ARAUBIDEA ERREGULATZEKO ABENDUAREN 21EKO 20/2023 LEGEAREN 13. ARTIKULUAN LAGUNTZAREN ONURADUN IZATEKO EZARRITAKO BALDINTZAK, ETA EZ DITUELA URRATZEN IKERMUGIKORTASUNA 2026 - IKERTZAILE DOKTOREENTZAKO MUGIKORTASUN-PROGRAMARI DAGOKIONEZ EZARRITA DAUDEN GAINERAKO LEGEZKO DEBEKUAK

1.– Ez du dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera galdu epai irmo bidez, eta ez dute kondenatu delitu hauetakoren bat egiteagatik: prebrikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe eralgitzea, influentzia-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.

2.– Ez du egin borondatezko konkurtsoa deklaratzeko eskaerarik, ez dute ezein prozeduratan kaudimengabetzat jo, ez dago konkurtsoan deklaratura, salbu eta horretan eraginkortasuna hartu badu hitzarmen batek, ez dago esku-hartze judizialaren pean, eta ez du desgaiuntza-zigorrik jaso Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera, konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako desgaiuntza-aldia amaitu gabe.

3.– Ez du eragin Administrazioarekin egindako kontratu baten suntsiarazpen irmorik, kausaren batean errudun deklaraturia izateagatik.

4.– Pertsona fisikoak, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkari direnak ez daude egoera hauetako bakar batean: Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bataerazintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako bataerazintasunen araubideko egoeraren batean; Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean aurreikusitako egoeraren batean, edo Hauteskunde Araubide Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko kargu batean, arau horretan edo gai hauek arautzen dituen arau autonomikoan ezarritakoaren arabera.

5.– Egunean du dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ordainketa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 4. artikuluan xedatutakoaren arabera (Agindua, 2023ko otsailaren 13koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa).

6.– Ez du dirulaguntzak jasotzea galarazten duen zehapen-ebazpen irmorik, betiere bat etorri hala xedatzen duen edozein legerekin. Zehazki, ez du administrazio- edo zigor-zehapenik, sexuan oinarritutako diskriminazioa egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik, dagokion zehapenean ezarritako aldia amaitu gabe.

7.– Betetzen du Estatuko araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean izateko betebeharra, bai eta sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta borrokatzeko neurriak ezartzeko betebeharra ere, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko Estatuko legeriak ezarritakoaren arabera.

8.– Ez du LGTBI-fobia egin, bultzatu edo sustatu, konbertsio-terapiak sustatzea edo egitea barne (otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikulua).

9.–Ez du zehapenik Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitako arau-hauste astun edo oso astun batengatik, administrazio-bidean emandako ebazpen irmo baten bidez, zuzenketa-neurri egokiak hartu eta zehapena ordaindu arte.

10.– Desgaitasuna duten pertsonentzat lege ezarritako erreserba-kuota bete gabe ez izatea, eta hori betetzeko neurri alternatiboak abian jarri direla ez egiaztatzea.

11.– Ez du egin enpresa-deslokalizazioaren deklaraziorik, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 51. artikuluen arabera³.

12.– Betetzen ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, lege ezarritakoaren arabera. (Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 6.6 eta 8. artikuluen kasuan; agindu hori Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa da).

13.– Helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo jaso ez izana edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatutik.

Baldintzak betetzeari eta emandako datuen zehaztasunari buruzko erantzukizunpeko adierazpenak:

1.– Indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen ditut.

2.– Eskabide honetan jasotako datu guztiak egiazkoak dira eta osorik daude, baita aurkezten dudan dokumentazioa ere, eta neure gain hartzen dut dagokion erantzukizuna (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikulua).

Erantzukizunpeko adierazpen batean edo komunikazio batean jasotzen den datu edo informazioen bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, edo administrazio eskudunari ez bazaio aurkezten erantzukizunpeko adierazpena, edo deklaratzeko dena betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa, edo komunikazioa, ezinezkoa izango da dena delako eskubidea baliatzen edo jardueran aritzen jarraitzea, egitate horren berri izaten den unetik bertatik aurrera, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).